

2023ko MAIATZAREN 11n UDALBATZARRAK EGINDAKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **6 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2023ko maiatzaren 11n, arratsaldeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ez-ohiko bilkura egiteko xedez.

Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Zinegotziak	Miren Letamendia Belloso and. Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Iban San Martin Hernandez jn. Leire Arana Olabarrieta and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iker Basurko De Miguel jn. Irene Urbietta Alberdi and. Itziar Murua Uria and. Ion Arozena Eizagirre jn. Ainara Landa Argote and. Xabier Etxaburu Elu jn. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. Eider Illarramendi Azkue and. Aitor Korta Etxabe jn. Ainhize Larramendi Larrarte and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Oihane Delgado Pita and.
Ez da etorri:	Koldo Uribarri Zenekorta jn.
Idazkaria	Amaia Gorrotxategi Zubizarreta and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ZERBITZUA (TAO) KONTRATUA: ZERBITZUA EMATEN JARRAITZEA

Espedientea: 2017I1200021

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20230511&punto=1>

Idazkariak azaldu du gai hau Udaltzarrerera ekarri izana ez dela zuzena, hain zuzen ere, akordio hartzeko eskumena duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra delako, eta ez Udaltzarra. Ondorioz, mahai gainean uzteko eskaera luzatu du.

Gaia mahai gainean gelditzea bozkatu dute, eta emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	20	9 EAJ-PNV, 8 EH Bildu, 2 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak
Kontrako botoak:		
Abstentzioak:		

Ondorioz, Udaltzarrak aho batez erabaki du gaia mahai gainean uztea.

2.- HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN ALDAKETA, 17-2 ETA 17-3 AREEI DAGOKIENA (OR IRITA ETA OD AMILLUBI). BEHIN-BEHINEKO ONESPENA

Espedientea: 2020H7000009

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20230511&punto=2>

Idazkariak akordio-zirriborroa irakurri ondoren, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	11	9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	8	8 EH Bildu
Abstentzioak:	1	1 Podemos-Equo Berdeak

Arratsaldeko zazpiak eta hogeian Illaramendi and. bileratik ateratzen da, eta zazpiak eta hogeitaseian itzuli egiten da (bozketaren aurretik).

Horrenbestez, adierazitako gehiengoarekin, Udaltzarrak erabaki hau hartu du:

Alkatzaren 2022ko martxoaren 25eko 0533 Dekretuaren bidez, Udalak hasiera eman zion plan orokorreko 17-2 eta 17-3 areen hiri-antolamendua aldatzeko prozedurari (OR Irita eta OD Amillubi). Zarauzko Udala da planaren aldaketaren sustatzailea.

Espedienteari ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura aplikatu zaio. 2022ko ekainaren 17an, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzaren ebazpena jakinarazi zitzaion Udalari; ebazpena ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentuari buruzkoa da.

2023ko urtarrilaren 23ko Osoko Bilkuran, Udalbatzarrak hasierako onespena eman zion plan orokorraren aldaketari. Hasieran onartutako dokumentuak antolamenduaren aurrerapenaren 3.a alternatiba garatu zuen.

Hasierako onespeneren ondoren, udal plangintzako aholku batzordea biltzeko deialdia egin zen. Hirigintza-proposamena 2023ko otsailaren 22ko bileran eztabaidatu zuten. Irizpena aldekoa izan zen, bertaratu ziren kideen gehiengoarekin.

Ondoren, espedientea jendaurreko tramitean egon zen, 45 eguneko epean. Ez zen alegaziorik aurkeztu.

Aginduzko txostenak ere eskatu ziren, araudi sektorialarekin bat etorritz.

2023ko apirilean, Udalak kontratatutako lan-taldeak behin-behineko onespenerako dokumentu gehigarria aurkeztu zuen, bai eta jasotako txosten sektorialeiei buruzko txostena ere.

Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak dokumentuari buruzko txostena egin zuen. Hasierako onespenerako dokumentuarekin alderatuta, funtsezkoak ez diren aldaketa batzuk sartu dira, Udalak hasierako onespena ematean jarritako baldintzak jaso direlako, eta txosten sektorialak ere kontuan hartu direlako.

Lurraldeko informazio-batzordeak behin-behineko onespeneraren proposamenari buruzko irizpena eman du.

Gaia aztertu ondoren, 11 zinegotzien aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"arekin, Udalbatzarrak honako hau **ERABAKI DU**

Lehenengoa.- Behin-behineko onespena ematea plan orokorreko 17-2 eta 17-3 areen hiri-antolamendua aldatzeko dokumentuari (OR Irita eta OD Amillubi).

Onartutako plana hasieran onetsitako bera da (2022ko azaroko eta abenduko agiriak), behin-behinean onartzeko dokumentu osagarrian sartutako aldaketekin (2023ko apirilaren 26ko agiria, Santiago Peñalba arkitektoak sinatua).

Bigarrena.- Behin-behineko onespena jaso duen dokumentua, aldi berean honako hauei bidaltzea:

a.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari, nahitaezko txostena egin dezan.

b.- Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoari, plan orokorraren aldaketaren ingurumen-adierazpen estrategikoa eman dezan.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamabostean; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.